

Herritarren Arretarako Bulego Mugikorraren kartelaren deskribapena

Nafarroako Gobernuaren kartel hau, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez aurkeztua, herritarren arretarako bulego mugikor bat sustatzen du, herrietara eramanez foru administrazioaren zerbitzuak eta plazetara hurbilduz. “Zurekin mugitzen den administrazioa” lelopean, kartelak bulego mugikorra irudikatzen duen kamioi baten irudia jasotzen du, baita plazan instalatuta dagoela eta barne-diseinua erakusten duten bi argazki ere. Irudien ondoan, herrietatik egiten duen ibilbidea sinbolizatzen duten hainbat kokapen-ikono ageri dira. Informazio gehiago formatu egokitan eskuratzeko QR irisgarri bat ere badu, eta horrekin batera Lectura Fácil, Zeinu Hizkuntza, azpititulazioa eta irisgarritasun bisualaren piktogramak. Halaber, Nafarroako Gobernuaren, 2030 Agendaren eta “Navarra te atiende” markaren logotipoak erakusten dira. Kartelaren behealdean, webgunera eramaten zaituen QR irisgarri bat dago: bulegomugikorra.navarra.eus

Bulego Mugikorrari buruzko informazioa

Nafarroako Gobernuak **bulego mugikor** bat sortu du. Bulego hau kamioi bat da. Kamioi hau herrietara joaten da zuk behar dituzun kudeaketak egiteko, adibidez, administrazioari eskaera bat egiteko.

Horregatik esaten dugu **bulego mugikor hau zurekin batera mugitzen den administrazioa dela.**

Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak pertsona guztiek erabili ahal izatea nahi dugu, non bizi diren axola gabe.

Zer egin dezakezu Bulego Mugikorrean?

Nafarroako Gobernuaren zerbitzuei buruzko informazioa eskatu.

Dokumentuak entregatu administrazio guztietarako.

Zure identitate digitala sortu edo erabili.

Internet bidezko kudeaketak egin.

Kexak jarri edo hobetzeko proposamenak egin.

Bilerak egin.

Formakuntza jaso.

Erakusketak ikusi.

Beste pertsona batzuekin jardueretan parte hartu, adibidez, tailer batean.

Bulego Mugikorrean **gaztelaniaz** eta **euskaraz** artatu zaitzakete.

Datu interesgarri batzuk Bulego Mugikorrari buruz

Datu hauek 2025eko martxotik abuztura bitartean dira:

Ia 2.000 pertsonari eman diegu arreta ia 1.200 emakumeri eta 800 gizon baino gehiagori. 2.500 kudeaketa baino gehiago egiten lagundu dugu. Bulego mugikorra 22 herritara joan da.

Balorazio inkestetan 1etik 10erako eskalan 9,6 puntu atera ditugu.

Inkesta hauek Bulego Mugikorra ebaluatzeko balio dute.

Zer irisgarritasun-neurri ditu Bulego Mugikorrak?

Bulego hau prest dago pertsona guztiek erabili ahal izateko. Talde profesionalak badaki nola artatu desgaitasuna duten pertsonak.

Espazioa irisgarria da eta baditu:

Bukle magnetikoa.

Zeinu hizkuntza zerbitzua..

Lurrean gidak Irakurketa Errazean dauden kartelak.

Informazio gehiago behar duzu?

Bulego Mugikorrari buruz edo Nafarroako Gobernuari buruz gehiago jakin nahi baduzu egin klik esteka honetan:

nafarroa.eus